


**Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusiaren
jardueren jarraipena Kanpo
Harremanetarako Planaren eta
Basque Country Estrategiaren
esparruan,
2014-2016**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Lehendakaritza

2017-VI-19





AURKIBIDEA

1	Sarrera.....	4
2	Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren jardueren jarraipena 2014-2016an.....	6
2.1	<i>1. helburu estrategikoa –Euskadi munduan proiektatzea– betetzeko 2014-2016an gauzatutako ekintzak</i>	<i>6</i>
2.2	<i>2. helburu estrategikoa –Euskadiren garapen sostengatu eta iraunkorrari laguntzea bere interes multisektorialak atzerrian sustatuz– betetzeko 2014-2016an gauzatutako ekintzak.....</i>	<i>9</i>
2.3	<i>3. helburu estrategikoa –Europaren eraikuntzaren parte-hartzaile kide eta erantzule kide izatea– betetzeko 2014-2016an gauzatutako ekintzak.....</i>	<i>13</i>
2.4	<i>4. helburu estrategikoa –Euskadik atzerriko euskal komunitatearekin dituen harremanak sustatu, lagundu eta areagotzea– betetzeko 2014-2016an gauzatutako ekintzak</i>	<i>16</i>
2.5	<i>6. helburu estrategikoa –Euskadiren kanpo harremanen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea– betetzeko 2014-2016an gauzatutako ekintzak.....</i>	<i>19</i>
3	2014-2016an egindako jardueraren ondorioak.....	22



TAULEN AURKIBIDEA

1. <i>taula</i> . 2014-2016 aldiko ekintza ildo bakoitzaren betetze maila erakusteko erabili den kolore kodea.....	5
2. <i>taula</i> . Helburu estrategikoaren ekintza ildoak, ekintzak eta betetze mailaren %, 2014-2016an	6
3. <i>taula</i> . Helburu estrategikoaren ekintza ildoak, ekintzak eta betetze mailaren %, 2014-2016an	9
4. <i>taula</i> . Helburu estrategikoan 2014-2016an egindako ekintzak/ekintza-multzoak.....	13
5. <i>taula</i> . Helburu estrategikoan 2014-2016an egindako ekintzak/ekintza-multzoak.....	16
6. <i>taula</i> . Helburu estrategikoaren ekintza ildoak, ekintzak eta betetze mailaren %, 2014-2016an	19

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia. 2014-2016 aldian jomugak lortu dituzten ekintzak, helburu estrategikoaren arabera24
--	-----

1 Sarrera

Euskadiren Nazioartekotzeko 2020rako Basque Country Esparru Estrategiaren (aurrerantzean agiri honetan: *BCE*) helburu nagusia Euskadi nazioartekotzeko prozesuan inplikaturako euskal eragileentzat erreferentzia esparru izatea da, eta, gainera, aintzat hartzen du bertan zehaztutako eremu batzuen *Nazioartekotze Plan Sektorialak* sortu eta zehaztea.

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak bete duen **Kanpo Harremanetarako Planak** erantzuna ematen dio *Basque Country Estrategiak* planteaturako *Nazioartekotze Plan Sektorialen eskemari*. Hau da beremisia:

MISIOA

Eusko Jaurlaritzaren kanpo harremanak programatu, bultzatu eta koordinatzea, efizientzia eta koherentzia printzipioen mende, Euskadi eragile global moduan posizionatzeko eta munduan euskal interesak aldezteko. Horretarako, Euskadiren erakunde ordezkariak eramango du eta lotura egonkorak ezarriko ditu beste herrialde, eskualde eta nazioarteko erakundeekin, Europako erakundeetan zuzenean parte hartzea bilatuko du, atzerriko euskal komunitatearekiko harremanak estutuko ditu eta nazioarteko elkartasun ekimena martxan jartzea bideratuko du.

Plan honen egiturak **5 helburu estrategiko** ditu, horietako bakoitzaren ekintza ildoak eta ekintzak, adierazleak, jomugak eta aurreikusitako plangintza.

Zehaztu diren helburu estrategikoak hauek dira:

- **1. helburu estrategikoa:** Euskadi munduan proiektatzea
- **2. helburu estrategikoa:** Euskadiren garapen sostengatu eta iraunkorrari laguntzea bere interes multisektorialak atzerrian sustatuz.
- **3. helburu estrategikoa:** Europaren eraikuntzaren parte-hartzaile kide eta erantzule kide izatea.
- **4. helburu estrategikoa:** Euskadik atzerriko euskal komunitatearekin dituen harremanak sustatu, lagundu eta areagotzea
- **6. helburu estrategikoa:** Euskadiren kanpo harremanen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea

Agiri honek *Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren* jardueren azterketa egiten du **bloke bitan** egituratuta:

1. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak 2014-2016 hirurtekoan burutu dituen jardueren multzoa
2. Ondorioak

Bloke bi horien bidez agerian uzten da **Kanpo Harremanetarako Planean** planteaturako xedeekin alderatuta **Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak** lortu duen aurrerapen maila.



Ondoren azaltzen den azterketarako, *Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak zuzendaritzen arabera (Kanpo Harremanak, Europako Gaiak eta Atzerriko Euskal Komunitatea)* eta *Euskadiren Ordezkaritzen arabera zehaztuta (EB, AEB, Mexiko, Argentina-Mercosur eta Txile, Peru eta Kolonbia)* eman dituen aginte taulak erabili dira informazio iturritzat.

Azterketan zutabe bat eransten da ***Kanpo Harremanetarako Planean ezarritako jomugen arabera ekintza ildo bakoitzak izan duen betetze maila adierazteko.***

Aurrerapena hobeto bistaratzeko, ondoren azaltzen den kolore kodea ezarri da:

1. taula. 2014-2016 aldiko ekintza ildo bakoitzaren betetze maila erakusteko erabili den kolore kodea

KOLORE KODEA	EKINTZEN BETETZE MAILA	EKINTZAREN EGOERA
	Betetze maila < % 25	% 25 baino gutxiago bete da
	% 25 ≥ Betetze maila < % 75	Partzialki bete da
	% 75 ≥ Betetze maila < % 100	Ehuneko handi batean egina
	Betetze maila = % 100	Gutziz bete da
	Betetze maila > % 100	% 100etik gora bete da

2 Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren jardueren jarraipena 2014-2016an

2014-2016 hiru urteetako jardueraren azterketa metatuak *Kanpo Harremanetarako Planean* zehaztutako *helburu estrategiko* bakoitzerako **Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak** emandako informazioaren arabera identifikatutako ekintzen betetze maila adierazten du.

Basque Country Estrategian zehaztutako nazioartekotze bektoretarantz ekintza horiek duten orientazioa, beren denborazko plangintza eta *Kanpo Harremanetarako Planean* planteatutako jomugen arabera ekintza bakoitzaren betetze mailaren ehunekoa ere jasotzen ditu azterketak.

2.1 1. helburu estrategikoa –Euskadi munduan proiektatzea– betetzeko 2014-2016an gauzatutako ekintzak

Ondoren erakusten den taulan lehen helburu estrategikoaren ekintza ildoak eta ekintzak zehazten dira, bai eta 2014-2016 hirurtekoan lortutako betetze mailaren ehunekoa ere, *Kanpo Harremanetarako Planean* jarritako helburuekin alderatuta.

2. taula. Helburu estrategikoaren ekintza ildoak, ekintzak eta betetze mailaren %, 2014-2016an

HELBURU ESTRATEGIKOA	EKINTZA ILDOA	EKINTZAK	BETETZE MAILA	BEKTOREAK				
				V1	V2	V3	V4	
① EUSKADI MUNDUAN PROIEKTATzea	1. BASQUE COUNTRY MARKA FINKATU	1	Basque Country aurkezteko material eleaniztuna euskarri anitzetan garatzea	% 50 20/40 ekintza	✓	✓	✓	
		2	Basque Country markaren zabalkundea koordinatzea	% 117 175/150 ekintza	✓	✓	✓	
		3	Interneten komunikatzeko estrategia bat garatzea	% 0 0/1 ekintza	✓	✓	✓	
		4	Euskal Etxeen ordezkariak eta federazioek antolatutako Basque Country markaren zabalkunde ekintzak	% 130 65/50 ekintza	✓	✓	✓	
		5	Euskal eragileak Basque Country marka atxikitzea	% 60 60/100 ekintza	✓	✓	✓	
	2. NAZIOARTEKOTZEKO INGURUENA SORTU	1	Lehentasunezko herrialde eta eskualdeetako liderrekin Learning Tours antolatzea	% 40 2/5 ekintza	✓	✓	✓	
		2	Txandakako egoitzarekin nazioarteko entzutea duten ekitaldiak erakarri eta koantolatzea	% 225 9/4 ekintza	✓	✓	✓	
		3	Talentua erakarri eta mantentzeari eta nazioarteko proiektzioa duen ezagutzari euskarria ematea	% 100 10/10 ekintza	✓	✓	✓	
	3. NAZIOARTEKO POSIZIOA HOBETU	1	Euskal profesionalen Nazio Batuen sistemako ekitaldi tematikoetan parte hartzea sustatzea.	% 136 34/25 ekintza	✓	✓	✓	✓
		2	Nazioarteko entzutea izango duen Basque Country Sari bat sortzea bideragarria den aztertzea	% 100 1/1 ekintza	✓	✓	✓	✓
		3	Euskal Expertise nazioartean sustatzea	% 235 94/40 ekintza	✓	✓	✓	✓

Lehen helburu tematikoko hamaika ekintzetatik, zazpi lortu edo gainditu egin dituzte *Kanpo Harremanetarako Planean* jarritako jomugak. Hauek dira ekintza horiek:

- 1.1.2. Basque Country markaren zabalkundea koordinatzea

- 1.1.4. Euskal Etxeen ordezkariak eta federazioek antolatutako Basque Country markaren zabalkunde ekintzak
- 1.2.2. Txandakako egoitzarekin nazioarteko entzutea duten ekitaldiak erakarri eta koantolatzea
- 1.2.3. Talentua erakarri eta mantentzeko eta nazioarteko proiektzioa duen ezagutzari euskarria ematea
- 1.3.1. Euskal profesionalak Nazio Batuen sistemako ekitaldi tematikoetan parte hartzea sustatu
- 1.3.2. Nazioarteko entzutea izango duen Basque Country Sari bat sortzea bideragarria den aztertzea
- 1.3.3. Euskal Expertise nazioartean sustatzea

Hirugarren ekintza ildoko **-L.1.3 Nazioarteko posizioa areagotu-** jarduera guztiek euren jomugak lortu dituztela eta % 100 edo goragoko betetze mailak dauzkatela esan beharra dago bereziki -1.3.1., 1.3.2. y 1.3.3. ekintzak).

Ildo horretan, 2014-2016 aldian zehar ekintza garrantzitsuak egin dira ekintza ildo hauei lotuta, esate baterako **Euskadi atzerrian bultzatzera eta Euskadi nazioartekotzera bideratutako Basque Country markaren sorrera**; marka zabalkundeak duten ekintzei laguntzea, Tknika edo Basquetour bezalako erakundeekin lankidetzan; **euskal expertise sustatzea**, ikuspegi sektorialetatik, bereziki atzerriko erakundeekin lankidetzan; **Basque Country webgunea abiaraztea** (www.basquecountry.eus) 2015ean, Euskadi munduan proiektatzeko eta Basque Country marka Interneten sustatzeko; edo **Basque Culinary World Prize** sariaren sorrera, herrialde markari lotutako nazioarteko entzutea duen saria, hain zuzen. Gainera, Europako Gaien Zuzendaritzak laguntza eman zion Donostia hiririari hautaketa prozesuan, 2016an **Europako Kultura Hiriburua** izan zedin

1.1.3 ekintza -Interneten komunikazio estrategia bat garatzea- ez da bete 2014-2016 hirurtekoan, ezinezkoa izan delako bilatzaileetan posizioari buruzko hasierako datuak atzitzea konparazioa egin ahal izateko, baina gainerako hiru jarduerak % 25 eta %75 bitarteko betetze maila dute ehunekotan.

- 1.1.1. Basque Country aurkezteko material eleaniztuna euskarri anitzetan garatzea
- 1.1.5. Euskal eragileak Basque Country marka atxikitzea
- 1.2.1. Lehentasunezko herrialde eta eskualdeetako liderrekin Learning Tours antolatzea

Kanpo Harremanetarako Planean 1.1.1 eta 1.2.1 ekintzetarako jarritako jomugak oso altuak izan bide dira, baina egia da Idazkaritzak landu eta zabaltzeko materialak (bideoak, aurkezpen eleaniztunak eta abar) **marka nazioartean zabaltzeko**, eta Learning Tours deritzenak egin dira eragin eta helmen handiarekin (Txile eta Mexiko). Gainera, eta 1.1.5 ekintzaren bidetik, www.basquecountry.eus webgunean Interneteko formulario bat betez **antolakundeek markari atxikimenduak** adierazteko atal bat gehitu da, "Basque Country naiz" goiburupean. Atxikita dauden erakundeak **2016ko abenduan 60 bat ziren**, hainbat esparru eta mailako euskal erakundeek gain, **diplomaziaren, ekonomiaren, gizartearen edo teknologiaren munduko erakundeak**, hala nola Bilboko kidego kontsularra, Gipuzkoako, Bilboko eta Arabako merkataritza ganberak, Euskal Herriko, Deustuko eta Mondragon



unibertsitateak, Agirre Lehendakaria Center for Social and Political Studies zentroa, UNESCO Etxea, Munduko Landa Eztatidagunea, Tecnalia edo Innobasque, besteak beste.

2.2 2. helburu estrategikoa –Euskadiren garapen sostengatu eta iraunkorrari laguntzea bere interes multisektorialak atzerrian sustatuz– betetzeko 2014-2016an gauzatutako ekintzak.

Ondorengo taulan 2014-2016 aldirako bigarren helburu estrategikoaren ekintza ildoak eta ekintzak zehazten dira. Lortu den betetze maila ere erakusten da, *Kanpo Harremanetarako Planean* jasotakoarekin alderatuta.

3. taula. Helburu estrategikoaren ekintza ildoak, ekintzak eta betetze mailaren %, 2014-2016an

HELBURU ESTRATEGIKOA	EKINTZA ILDOA	EKINTZAK	BETETZE MAILA	BEKTOREAK				
				V1	V2	V3	V4	
EUSKADIREN GARAPEN SOSTENGATU ETA IRAUNKORRARI LAGUNTzea BERE INTERES MULTISEKTORIALAK ATZERRIAN SUSTATUZ	1. EUSKADIRENTZAT ESTRATEGIKOAK DIREN ESKUALDEKIN HARREMANAK EGIN	1	Eskualde estrategikoekin alde biko lankidetzaz hitzarmenak egin eta martxan jartzea	% 100 8/8 ekintza	✓	✓	✓	✓
		2	Euskadirentzat interes estrategikoa duten eskualde sareetan parte hartzea	% 214 15/7 ekintza	✓	✓	✓	✓
		3	Euskadirentzat interesa duten eskualdeetatik eta eskualdeetara noranzko biko bisita instituzionalak antolatzea	% 71 25/35 ekintza	✓	✓	✓	✓
	2. EUSKADIK NAZIOARTEKO ERAKUNDEKIN DITUEN HARREMANAK AREAGOTU	1	Nazioarteko erakundeekin lankidetzaz hitzarmenak egin eta martxan jartzea, Euskadi erreferentzia den ereduak eta politika publikoak eskaintzeko	% 283 17/6 ekintza	✓	✓	✓	✓
		2	Alderantzizko misioak antolatzea	% 360 18/5 ekintza	✓	✓	✓	✓
		3	Nazioarteko erakundeekin elkarrizketa foroak egitea eta/edo parte hartzea, euskal eragileen parte hartzea bultzatuz	% 225 27/12 ekintza	✓	✓	✓	✓
		4	Alde anitzeko erakundeetara ezagutzeko bisitak bideratzea	% 45 9/20 ekintza	✓	✓	✓	✓
		5	Nazioarteko erakundeen ordezkariak bideak atzitzea	0% 0/2 ekintza	✓	✓	✓	✓
	3. EUSKADIK ATZERRIAN DITUEN ERAKUNDE- HARREMANAK AREAGOTU	1	Lehentasunezko eta bigarren lehentasunezko herrialdeetan ordezkariak eta erakundeen arteko harreman egonkorak hezurramitzea	% 112 112/100 ekintza	✓	✓	✓	✓
		2	Euskadi barruan eta kanpoan ordezkariak diplomatikoen harremanak estutzea	% 110 88/80 ekintza	✓	✓	✓	✓
		3	Euskaditik eta Euskadira noranzko biko bisita instituzionalak antolatzea	% 316 158/50 ekintza	✓	✓	✓	✓
	4. EUSKAL ERAGILEEK SARE TEMATIKOETAN PARTE HARTZEA SUSTATU	1	Euskadiko eragileentzat lehentasunezko interesa duten esparruetan sare tematiko garrantzitsuak identifikatzea	% 267 32/12 ekintza	✓	✓	✓	✓
		2	Eragileak sare identifikatuak integratzeko prozesuan erakunde laguntza ematea	% 5 3/60 ekintza	✓	✓	✓	✓
		3	Sare tematiko estrategikoetan Euskadiren lidergoa sustatzea	% 117 7/6 ekintza	✓	✓	✓	✓

2. helburu estrategikoaren hamar ekintza. Euskadiren garapen sostengatu eta iraunkorrari laguntzea bere interes multisektorialak atzerrian sustatuz ehuneko berdinetan edo handiagoetan dago *Kanpo Harremanetarako Planak* ezarritako helburuekin alderatuta. Hauek dira ekintza horiek:

- 2.1.1. Eskualde estrategikoekin alde biko lankidetzaz hitzarmenak egin eta martxan jartzea

- 2.1.2. Euskadirentzat interes estrategikoa duten eskualde sareetan parte hartzea
- 2.2.1. Nazioarteko erakundeekin lankidetzak hitzarmenak egin eta martxan jartzea, Euskadi erreferentzia den ereduak eta politika publikoak eskaintzeko
- 2.2.2. Alderantzizko misioak antolatzea
- 2.2.3. Nazioarteko erakundeekin elkarrizketa foroak egitea eta/edo parte hartzea, euskal eragileen parte hartzea bultzatuz
- 2.3.1. Lehentasunezko eta bigarren lehentasunezko herrialdeetan ordezkariak ezarri eta erakundeen arteko harreman egonkorak hezurramitzea
- 2.3.2. Euskadi barruan eta kanpoan ordezkariak diplomatikoekiko harremanak estutzea
- 2.3.3. Euskaditik eta Euskadira noranzko biko bisita instituzionalak antolatzea
- 2.4.1. Euskadiko eragileentzat lehentasunezko interesa duten esparruetan sare tematiko garrantzitsuak identifikatzea
- 2.4.3. Sare tematiko estrategikoetan Euskadiren lidergoa sustatzea

Esan beharra dago **L.2.3 Euskadik atzerrian dituen erakunde harremanak areagotu** ekintza ildoak ekintza guztietan gainditu dituela *Kanpo Harremanetarako Planak* jarritako jomugak. Era berean, aipagarria da **Euskadik atzerrian dituen sei ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzak Madril duen bulegoak** eman duten laguntza *A.2.2.1 ekintzan –Nazioarteko erakundeekin lankidetzak hitzarmenak egin eta martxan jartzea, Euskadi erreferentzia den ereduak eta politika publikoak eskaintzeko–*.

Orokorrean, ekintza hauek nolabaiteko jardura izan dute, **% 25 eta % 75 bitarteko betetze mailekin:**

- 2.1.3. Euskadirentzat interesa duten eskualdeetatik eta eskualdeetara noranzko biko bisita instituzionalak antolatzea
- 2.2.4. Alde anitzeko erakundeetara ezagutzeko bisitak bideratzea

Ekintza horietan nabarmentzen dena **Euskadiren Kide Estrategikoen Sarea eratu izana** da, hortik sortuko baitira lankidetzak proiektu gehiago, interesa duten eskualdeetatik eta eskualdeetara bisita instituzionalak eginez. Bestalde, eta 2.2.4 ekintzari dagokionez, argi geratu da zeinen zaila den nazioarteko erakundeen ordezkariak erakartzea, eta horregatik izan du betetze maila apalagoa.

Akitaniak, Bavariak, Flandriak, Queretarok eta Jiangsuk osatzen duten Kide Estrategikoen Sareak Euskadiren interes berdintsuak dituzten eskualde liderrekin aliantza estrategikoen sare bat sortzea du helburu. Garapenerako lankidetzak dira bide erabilienak truke ekonomikoa bultzatzeko, esperientziak elkarri erakusteko edo posizioak elkarrekin aldezteko. Horretarako, **lankidetzak hitzarmenak** ezarri dira Euskadi erreferentzia den ezagutza, ereduak edo politika publikoak irakasteko eta/edo eskaintzeko, erreferentzia diren beste eskualde batzuetan dagoen ezagutzatik ikasteko, eta nazioarteko lankidetzak proiektuei ekiteko. Hitzarmen horietara heltzeko, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Kide Estrategikoen Sareko kideak izateko potentzial handia duten estatuz azpiko erakundeekin harremanak hasi eta mantendu ditu 2014-2016 aldian, eta horien ondorioz geroago kide berriak izan dira, esate baterako, Cundinamarca eta Quebec 2017an.

2. helburu estrategikoan –Euskadiren garapen sostengatu eta iraunkorrari laguntzea bere interes multisektorialak atzerrian sustatuz– **2.4.2 ekintzak –Eragileak sare identifikatueta integratzeko prozesuan erakunde laguntza ematea–** bakarrik dauka % 25 baino betetze maila txikiagoa, zati txiki batean baino ez baita bete.

Bigarren helburu estrategikoaren ildotik 2014-2016 aldian egindako ekintzarik garrantzitsuena, besteak beste, **akordioak, hitzarmenak eta aditze memorandumak sinatzea** izan da, hau da:

- **Euskadiko eta Querétaroko gobernuen arteko Aditze Memoranduma**, erakunde zko, kulturazko eta hezkuntzazko harremanak estutzeko, elkarri lehentasunezko kidetasuna aitortzen baitiote.
- **Euskadiko eta Bavariako gobernuen arteko lankidetzaren hitzarmena**, besteak beste, Lanbide Heziketa, I+G edo energia arloetan lan bateratua bultzatzen duena.
- **Jiangsu eta EHUren arteko Aditze Memoranduma** euskal unibertsitateek Txinako probintziako unibertsitateekin dituen harremanak bultzatzeko, ikasleak trukatzeko eta ikerketa proiektu bateratuak egiteko.
- **Eusko Jaurlaritza – UNESCO Aditze Memoranduma**, erakunde bien lankidetzaren sendotzeko, lehentasunezko zat jotzen dituzten gai bitarako, hots, demokrazia eraikitzen herritarrek parte hartzea bultzatuko duten gobernantza eredu berriak indartzea eta hezkuntza politiketan eta heziketan giza eskubideen zeharlerro bat txertatzea.
- **Euskadiko eta Flandriako gobernuen arteko Aditze Memoranduma**, eskualde bietarako garrantzitsuak diren beste arlo batzuek gain, berrikuntzan, LH eta lan merkatuan, ingurumenean, osasunean eta kulturaren harremanak estutzeko.

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak beste akordio, hitzarmen eta aditze memorandum batzuk lortzen lagundu die sail eta erakunde eskumendunei, hau da:

- **Euskadiko eta Eskoziako gobernuen arteko Aditze Memoranduma**, osasun politiketan eta arreta soziosanitariokoetan, IKTek lagundutako gizarte laguntzaren eta osasun zerbitzu integratuen berrikuntzan eta prestazioan eta osasun digitalaren inguruko estrategia adimentsuen garapenean lankide izateko.
- **Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzaren eta Txileko Nekazaritza Ministerioaren (MINAGRI) arteko Aditze Memoranduma**, nekazaritza eta abeltzaintza arloan harremanak estutzeko eta modu aktiboan lankide izateko.
- **Eusko Jaurlaritzaren (Hizkuntza Politikako Sailburuordetza) eta Paraguaiako Gobernuaren arteko hitzarmena**, hizkuntzen koofizialtasunerako politika publikoen ereduari buruz.
- **Etxepare Institutuaren eta Ikerketa Zientifiko eta Teknikoen Kontseilu Nazionalaren (CONICET) arteko hitzarmena**, Argentinako zientzia sistemaren esparruan euskal kulturari buruzko ikerketak garatzeko.

Euskadik X. Legengintzaldian interes multisektorialen sustapena bultzatzeko atzerrian darabilen jardueraren dinamismoaren erakusgarri, horra hor, gainera, **Lehendakariak 57 herrialdeetako enbaxadoreekin egin dituen 80 topaketak, maila handiko 29 bisitariren harrera eta Europar Batasuneko kide diren herrialdeetako, ASEANgo, Visegrádeko Taldeko,**



Latinoamerikako eta Arabiar ligako ordezkari diplomatikoekin egindako 7 talde bileratara joan izana. Lehendakariak atzerrira egin dituen 11 bidaiak instituzionalak ere azpimarratu behar dira, bai eta **Euskadiko kontsulatu berriak** irekitzea ere: Txekiar Errepublikan, Hungarian, Brasilen, Estonian, Suedian, Filipinetan, Kolonbian, Eslovenian eta Islandian.

Era berean, Euskadik zenbait sare eta elkartetako presidentetza izan du, hots, **Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sarean (NPLD)**, 2015 urteaz gero, eta **Bizialdi Guztian Ikasteko Eskualdeko eta Tokiko Agintarien Europako Elkartean (EARLALL)**, 2014az gero. Gainera, 2014an Euskadik **The Climate Group nazioarteko antolakundearen** Europarako presidentetza berritu zuen; antolakundea klima aldaketaren aurkako borrokan ari da elkarlan publiko-pribatutik.

Gainera, eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren laguntzarekin, Euskadik modu proaktiboan hartu du parte sare eta elkartean, esate baterako, ORU/FOGAR sarean eta kide sortzaile den Abangoardiako Ekimenean; EARLALL eta EUROMONTANAN, presidentetza baitauka; CRPMn eta NPLDn, gobernantza organoetan parte hartzen baitu; eta ERRIN sarean, non manufaktura lantaldeko burutza Euskadik duen.

"Abangoardiako Ekinbidea" dela eta, Euskadik konpromisoa hartu zuen 2014an Europako beste 26 eskualderekin batera euren espezializazio adimentsuko estrategietan elkarrekin lan egiteko; helburua Europako balio kate berriak sortzea zen, garapen ekonomiko eta berrikuntza handiagoa lortze aldera, Europako Batzordeak markatutako industria eta berrikuntza agenda jarraituz.

Halaber, aitortu beharra dago Euskadik nazioarteko proiektzioa izan duten eztabaidagune eta foroetan hartu duela parte, esate baterako **Europaren Periferiako eta Itsasaldeko Eskualdeen Konferentziako (CRPM) Arku Atlantikoko Batzordearen Batzar Orokorrean**, 2015ean Bilbon; **Parisen egin zen COP21 Klimaren Gailurrean**, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak bat bertaratu baitzen; Quitoko **Habitat III Gailurrean**, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailarekin batera hartu baitzuen parte; **ORU-FOGAR sarearen Batzar Orokorrean**; eta **Eskualde Gobernuen Munduko VII. Gailurrean**, Rio de Janeiron, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren ordezkariak hizlari eta moderatzaile izan eta Euskadiren autogobernu eredua azaldu zuten hartan eta **Eusko Jaurlaritzari jokabide onei esker sari bi** eman zizkieten hartan: "Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria" argitalpenagatik eta "Haurren Garapenaren Jarraipen Protokoloa Eskola Eremuan" protokoloagatik. Sari horiek, Eusko Jaurlaritzak 2014-2016 aldian egin duen lan onari eman zaion aitortza, Nazio Batuek modalitate bitan ematen zituenei gehitu zitzaizkien: **mekanismo berritzaileen bitartez herritarrek erabaki politikoetan parte hartzea sustatzeari ematen dion saria**, Irekiari emana, eta **Zerbitzu Publikoaren Saria**, genero ikuspegia sustatzearen kategorian EMAKUNDE Emakumeren Euskal Institutuari emana.

Nazioarteko erakundeetako ordezkariak bideak lortzeari dagokionez, ekintza hau ezin izan da egin.

2.3 3. helburu estrategikoa –Europaren eraikuntzaren parte-hartzaile kide eta erantzule kide izatea– betetzeko 2014-2016an gauzatutako ekintzak

Ondoren erakusten den taulan *Kanpo Harremanetarako Planeko* hirugarren helburu estrategikoaren ekintza ildoak eta ekintzak atalka eta planteatutako jomugekin alderatuta lortutako betetze maila agertzen dira, txostenaren hasieran ezarri den kolore kodearen arabera.

4. taula. Helburu estrategikoan 2014-2016an egindako ekintzak/ekintza-multzoak

HELBURU ESTRATEGIKOA	EKINTZA ILDOA	EKINTZAK	BETETZE MAILA	BEKTOREAK				
				V1	V2	V3	V4	
③ EUROPAREN ERAIKUNTZAREN PARTE-HARTZAILE KIDE ETA ERANTZULE KIDE IZATEA	1. EUSKADIREN LIDERGOA SUSTATU, EUROPA DITUEN INTERESAK ALDEZTEKO	1	Lobby politiko-instituzionalaren ekintzak bultzatzea	% 225 27/12 ekintza	✓	✓	✓	
		2	Europako erakunde eta organoetan Euskadiren partaidetza indartzea	% 148 89/60 ekintza	✓	✓	✓	
		3	Estatuaren Administrazio Orokorren eta Euskadiren arteko alde biko Batzordea Europako gaien eta atzerri harremanen arloan berraktibatzea	0% 0/4 ekintza	✓	✓	✓	
		4	Euskadiraiko lehentasuna duten arloetako interes komunak Europar Batasunean aldezeko lankidetasunak ezartzea	% 150 6/4 ekintza	✓	✓	✓	
	2. MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZA INDARTU	1	Akitaniarekiko harremanak indartzea eta Akitania-Euskadi Plan Estrategikoa lantzea	% 32 64/200 ekintza		✓	✓	✓
		2	Mugaz gaindiko lankidetzak garatzen duten Frantziako Errepublikako erakundeekin harremanak indartzea	% 108 13/12 ekintza		✓	✓	✓
		3	Mugaz gaindiko eta eskualde arteko lankidetzarako eztabaidagune edo elkarteetan parte hartzea	% 67 4/6 ekintza		✓	✓	✓
	3. EB-REN ERAIKUNDE, PROIEKTU ETA EKINBIDEETAN EUSKAL ERAGILEEN PARTAIDETZA ETA PRESENTZIA AREAGOTU	1	EBrekin zerikusia duten edukien zabalkundea egiteko zerbitzuen plataforma birtuala eguneratu eta indartzea	% 100 1/1 ekintza	✓	✓	✓	✓
		2	Europako politiketan adituak direnekin informazio saioak antolatzea	% 203 81/40 ekintza	✓	✓	✓	✓
		3	Europaren eraikuntzan egin diren aurrerapenez eta horiek Euskadin duten eraginaz sentsibilizazio kanpainak eta debateak bultzatzea	% 400 12/3 ekintza	✓	✓	✓	✓
		4	Interesa duten Europako politika publikoei jarraipena emateko Eusko Jaurlaritzaren Sailekin koordinatu eta elkarlanean aritzea	% 214 427/200 ekintza	✓	✓	✓	✓
		5	Euskadiko jokabide onen zabalkundea egiteko programetan eta jardunaldietan parte hartzea	% 158 19/12 ekintza	✓	✓	✓	✓
	4. ERKIDEGOAREN ZUZENBIDEA APLIKATZEN DELA JAGON	1	Erkidegoaren zuzenbideak ezartzen dituen eginbeharrak betetzerakoan Jaurlaritzaren jardura koordinatu eta aholku ematea	% 113 18/16 ekintza			✓	
		2	Estatuaren Administrazio Orokorrekin solaskide izatea	% 188 150/80 ekintza			✓	
		3	Subsidiaritasun printzipioa modu eraginkorrean aplikatzen elkarlanean aritzea	% 100 1/1 ekintza			✓	

3. helburu estrategikoaren –Europaren eraikuntzaren parte-hartzaile kide eta erantzule kide izatea– esparruan 2014-2016 bi urtekoan egin diren ekintzak aztertzerakoan, **ekintza ildorik gehienek ekintza guztiak osatu dituztela ikusten da, \$ 100 edo gehiagoko betetze mailarekin (L.3.3 –EBren erakunde, proiektu eta ekinbideetan euskal eragileen partaidetza eta presentzia areagotzea– eta L.3.4 –Erkidegoaren zuzenbidea aplikatzen dela jagotea–)**. Oro har, **15 ekintzetatik 12k lortu dituzte Kanpo Harremanetarako Planean** markatutako helburuak.

Hauk dira ekintza horiek:

- 3.1.1. Lobby politiko-instituzionalaren ekintzak bultzatzea
- 3.1.2. Europako erakunde eta organoetan Euskadiren partaidetza indartzea
- 3.1.4. Euskadirako lehentasuna duten arloetako interes komunak Europar Batasunean aldezteko lankidetasunak ezartzea
- 3.2.2. Mugaz gaindiko lankidetzak garatzen duten Frantziako Errepublikako erakundeekin harremanak indartzea
- 3.3.1. EBrekin zerikusia duten edukien zabalkundea egiteko zerbitzuen plataforma birtuala eguneratu eta indartzea
- 3.3.2. Europako politiketan adituak direnekin informazio saioak antolatzea
- 3.3.3. Europaren eraikuntzan egin diren aurrerapenez eta horiek Euskadin duten eraginaz sentsibilizazio kanpainak eta debateak bultzatzea
- 3.3.4. Interesa duten Europako politika publikoei jarraipena emateko Eusko Jaurlaritzaren Sailekin koordinatu eta elkarlanean aritzea
- 3.3.5. Euskadiko jokabide onen zabalkundea egiteko programetan eta jardunaldietan parte hartzea
- 3.4.1. Erkidegoaren zuzenbideak ezartzen dituen eginbeharrak betetzerakoan Jaurlaritzaren jardura koordinatu eta aholku ematea
- 3.4.2. Estatuaren Administrazio Orokorrarekin solaskide izatea
- 3.4.3. Subsidiariorotasun printzipioa modu eraginkorrean aplikatzen elkarlanean aritzea

3.1.1 Lobby politiko-instituzionalaren ekintzak bultzatzea, 3.1.2 Europako erakunde eta organoetan Euskadiren partaidetza indartzea eta 3.3.2 Europako politiketan adituak direnekin informazio saioak antolatzea ekintzen kasuan, betetze maila handia izan da, hiru urtekoan **Europako erakundeek jardura bizia** izan dutelako eta euskal erakundeek informazio saioak egiteko premia sumatu dutelako. Ildo horretan, Europako lobby politiko-instituzionalaren ekintza nabarmentzen da, **goi mailako bilerak** ahalbidetu dituelako euskal erakundeen ordezkarien eta EBko presidenteorde eta komisarioen artean.

Lan hori osatzeko, gainera, euskal eragileek **EBren ekinbide eta programetan** parte hartzeari lagundu zaio; besteak beste, nabarmendu egiten dira Horizonte 2020 programa I+G+b-ren eremuan, INTERREG programa eskualde arteko lankidetzak arloan, LIFE programa ingurumenarekin zerikusia duten proiektuetarako, edo Creative Europe programa kultura arloan. Gainera, Europaren esparruan izaera sektorialeko berariazko ekintzak bultzatu dira, interesa duten sare tematikoen bileretan sistematikoki parte hartuz eta **Euskadiri erreferentzia posizioa hartzen** lagunduz espezializazio adimentsuko eskualde estrategiak gauzatzeko, euskal lanbide heziketa enplegu sorrera sustatzeko tresna gisa proiektatzen, eta itsasandiko aplikazio energetikoetan eta aurkako inguruneetan Euskadiren aitzindaritza bultzatzen.

3.2.1 Akitaniarekiko harremanak indartzea eta Akitania-Euskadi Plan Estrategikoa lantzea eta 3.2.3 Mugaz gaindiko eta eskualde arteko lankidetzarako eztabaidagune edo elkarteetan parte hartzea ekintzek **% 25 eta % 75 bitarteko betetze mailak lortu dituzte.**

Azken ekintza ildo honi dagokionez, mugaz gaindiko proiektuetarako laguntzen ikuspegia, 2014-2010 Akitania-Euskadi Euroeskualdearen Plan Estrategikoa onartu zenez gero, zeharo aldatu dela esan liteke. Horrela, Euskadiko eta Akitaniako eragileen arteko harreman jarioak areagotzen izaera egituratzailea eta benetako eragina duten proiektuetarantz eboluzionatu da, eta proiektuen kalitateari eman zaio lehentasuna kopuruaren aurretik.



Beste alde batetik, eta lurraldeko eta eskualde arteko lankidetzari lotuta, Eusko Jaurlaritzak ekintza garrantzitsuak egin ditu 2014-2016 aldian. Nabarmenezkoa, **Akitania Euskadi Lurralde Lankidetzarako Europako Taldean (LLET)** egiten ari den lana eta, zehazki, 2014an onartutako **2014-2020 Plan Estrategikoa**; plan honek erakundeen lana eta arlo honetako lankidetzahalekin erakarriko dituzten **lau lehentasunak** identifikatzen ditu: **euroeskualdeko herritartasuna, ezagutzaren ekonomia, lurralde iraunkorra eta gobernantza irekia**. Era berean, Euskadik **2016 arte Euroeskualdearen presidentetza** izan du; urte horretako martxoan saio berezi batean Iñigo Urkullu lehendakaria eta Alain Rousset Akitaniako Eskualde Kontseiluko lehendakaria burukide zirela **Nafarroa LLETen sartzearekin** amaitu zen presidentetza hori.

Horren osagarri eta mugaz gaindiko lankidetzaren esparruan, aipagarriak dira **Pirinioetako Lan Elkartean, Arku Atlantikoaren Batzordean** eta **Iparraldean** Frantziako erakundeekin harremanak ezartzen euskaldunok egin dugun lana.

Azkenik, *3.1.3 ekintza –Estatuaren Administrazio Orokorren eta Euskadiren arteko alde biko Batzordea Europako gaien eta atzerri harremanen arloan berraktibatzea– ez da egin*. Hasieran horren lau bilera aurreikusi ziren, baina Eusko Jaurlaritzak Batzorde hori berraktibatzen egin duen lan handia gorabehera (deialdia egiteko eskatzera eta aztergai zerrenda proposatzera ere iritsi zen), hiru urtekoan ez da Batzordearen deialdirik egon.

2.4 4. helburu estrategikoa –Euskadik atzerriko euskal komunitatearekin dituen harremanak sustatu, lagundu eta areagotzea– betetzeko 2014-2016an gauzatutako ekintzak

5. taula 4. helburu estrategikoaren ekintza ildoak eta ekintzak erakusten ditu, bai eta betetze maila ere , 2014-2016. hirurtekoan egin beharreko ekintzetarako Kanpo Harremanetarako Planean proposatutako jomugekin alderatuta.

5. taula. Helburu estrategikoan 2014-2016an egindako ekintzak/ekintza-multzoak

HELBURU ESTRATEGIKOA	EKINTZA ILDOA	EKINTZAK	BETETZE MAILA	BEKTOREAK				
				V1	V2	V3	V4	
④ EUSKADIK ATZERRIKO EUSKAL KOMUNITATEAREKIN DITUEN HARREMANAK SUSTATU, LAGUNDU ETA AREAGOTZEA	1. ATZERRIKO EUSKAL KOMUNITATEA ORAIN OSATZEN DUTEN TALDEEKIN HARREMANAK EGIN	1	Atzerriko euskal komunitatea lotuko duen sare bat zehaztu eta martxan jartzea: Global Basque Network	% 100 1/1 ekintza	✓	✓		✓
		2	Euskal jatorriko pertsonak eta Euskadirekiko hurbilak identifikatzea	% 106 42.480/40.000 ekintza	✓	✓		✓
		3	Nazioartean ezagutza eta/edo posizio garrantzitsua duten euskal jatorriko pertsonak identifikatu eta harremana egitea	% 45 45/100 ekintza	✓	✓		✓
		4	Atzerriko euskal komunitateko kideekin Euskadin aldizkako topagune bat egitea	% 33 1/3 ekintza	✓	✓		✓
	2. EMIGRAZIOAREKIN ETA EUSKAL DIASPORAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ZERTZELADEI BURUZKO IKERKETA ETA EZAGUITZA SUSTATU	1	Emigrazioari eta euskal diasporari buruzko azterlan eta argitalpenei laguntzea	% 50 10/20 ekintza	✓	✓		✓
		2	Akademiko eta ikertzaileen laguntzaz emigrazioari eta euskal diasporari buruzko nazioarteko mintegi eta topaketak egitea	% 140 700/500 ekintza	✓	✓		✓
		3	Emigrazioaren eta euskal diasporaren ahozko lekukotzen oinarri dokumental bat sortzea	% 87 173/200 ekintza	✓	✓		✓
		4	Diasporari eta emigrazioari buruzko erakusketa ibiltariak egitea	% 258 12.900/5.000 ekintza	✓	✓		✓
	3. EUSKAL ETXEEN SAREAREN BITARTEZ ATZERRIKO EUSKAL KOMUNITATEA INDARTZEN LAGUNDU	1	Euskal errealitatearen zabalkundearen egiteko bide gisa Euskal Etxeen egitekoa indartzea	% 102 6.100/6.000 ekintza	✓			
		2	Euskal Etxeen eta euren herrialdeetan kokatutako beste diasporaren arteko lankidetzaren sustatzea	% 743 223/30 ekintza	✓			
		3	Euskal Etxeak dauden gizarteetan haien ekintzak areagotzea.	% 96 480/500 ekintza	✓			
		4	Euskal Etxeak informazioaren eta komunikazioen teknologietan sartzera bultzatzea	% 127 253/200 ekintza	✓			
		5	Euskal Etxeetan gazteen eta emakumeen presentzia handitzea	% 460 2.300/500 ekintza	✓			
		6	Euskal Etxeak sarea handitzea, bereziki helmuga berrietan	% 30 3/10 ekintza	✓			
	4. ATZERRIKO EUSKAL KOMUNITATEA OSATZEN DUTEN PERTSONEI ARRETA EGIN	1	Behar gorrian dauden familia unitateei laguntza ematea	% 144 288/200 ekintza	✓			
		2	Euskadira itzultzen diren euskal herritarrei eta euskal jatorrikoiei aholkua eta laguntza ematea	% 62 31/50 ekintza	✓			

4. helburu estrategikoak 9 jarduera ditu % 100 edo gehiagoko betetze mailarekin, eta horietako batzuek Kanpo Harremanetarako Planean ezarritako helburuak gutziz goitik bete dituzte, oso gertaera onuragarria berau Plana gauzaterakoan.

Hauek dira ekintza horiek:

- 4.1.1. Atzerriko euskal komunitatea lotuko duen sare bat zehaztu eta martxan jartzea: Global Basque Network
- 4.1.2. Euskal jatorriko pertsonak eta Euskadirekiko hurbilak identifikatzea
- 4.2.2. Akademiko eta ikertzaileen laguntzaz emigrazioari eta euskal diasporari buruzko nazioarteko mintegi eta topaketak egitea
- 4.2.4. Diasporari eta emigrazioari buruzko erakusketa ibiltariak egitea
- 4.3.1. Euskal errealitatearen zabalkundea egiteko bide gisa Euskal Etxeen egitekoa indartzea
- 4.3.2. Euskal Etxeen eta euren herrialdeetan kokatutako beste diasporaren arteko lankidetzak sustatzea
- 4.3.4. Euskal Etxeak informazioaren eta komunikazioen teknologietan sartzera bultzatzea
- 4.3.5. Euskal Etxeetan gazteen eta emakumeen presentzia handitzea
- 4.4.1. Behar gorrian dauden familia unitateei laguntza ematea

Atzerriko euskal komunitatea integratzeko eta Euskadin bizi diren euskaldunen eta diasporaren arteko harremanak estutzeko **Basque Global Network Interneteko sare soziala sortzea** da, Gasteizen **Kanpoko Euskal Gizataldeen VI. Biltzarra** egitearekin batera, laugarren helburu estrategikoaren ildotik 2014-2016 aldian egin den ekintza azpimarragarria.

Basque Global Network sarearen kasuan, atzerriko euskal komunitatea osatzen duten pertsonak konektatzearen sortu zen, euren arteko eta euskal erakundeekiko interakzioa errazte aldera, eta sareko lana bideratzen duen topagune bat eratuz.

Gasteizen 2015ean **Kanpoko Euskal Gizataldeen VI. Biltzarra**, egin zen "**Diasporizatu!**" goiburupean; 22 herrialdeetako 59 biltzarkide batu zituen, eta han atera ziren ondorioetatik sortu zen **2016-2019 lau urterako Erakundearen Ekintza Plana**, Euskadiko gizartearen eta atzerriko euskal komunitatearen arteko harremanak estutzeko.

Gainera, 2014-2016 aldian zehar, Euskal Etxeen sareak 6.000 ekintza baino gehiago bultzatu ditu; horietako askok diru laguntza jaso dute dagokien laguntza deialdiaren esparruan, 64 gaztek **Gaztemundu programan** hartu dute parte eta 3 **Euskal Etxe berri** sortu dira Munichen, Marseillan eta Montpellieren (Jacou).

4.2.3 ekintza –Emigrazioaren eta euskal diasporaren ahozko lekukotzen oinarri dokumental bat sortzea– eta **4.3.3. ekintza –Euskal Etxeak dauden gizarteetan haien ekintzak areagotzea–oso ehuneko altuetan bete dira** (hurrenez hurren, % 87 eta % 96), hau da, **ekintza hauen ildotik lan gogorra egin dela ikusten da.**

Ildo horretan, "Memoria Bizia" proiektuarekin aurrera jarraitzen da, AEB, Kanada eta Argentinako euskal emigrazioaren ahozko lekukotzak biltzen baititu, jendearentzat zabalik egongo den agiritegi digital bat sortzen aurrera eginez, lurralde horietako euskaldunei ikusgaitasuna emate aldera.

Gainerako bost ekintzek % 25 eta % 75 bitarteko betetze maila dute kasu guztietan.

4.4.2 Euskadira itzultzen diren euskal herritarrei eta euskal jatorrikoen aholkua eta laguntza ematea ekintzari dagokionez, komeni da argitzea, % 62ko betetze indizea badu ere, zerbitzu



hori eskatu duten pertsona guztiak artatu dituela *Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak*.

4.3.6 Euskal Etxeak sarea handitzea, bereziki helmuga berrietan ekintza ildoari dagokionez, *Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren* lana bidea erraztea da, eta Euskal Etxe berriak irekitzeko ekimena haien inguruan elkartu nahi duten pertsona fisikoei dagokie. Merezi du "Munitxeko Euskal Elkartea" aipatzea, eta Marseillako euskal etxea (Marseillako Euskal Etxea - Maison Basque de Marseille) eta Montpellierko euskal etxea (Montpelliereko Euskal Etxea - Maison Basque de Montpellier) ireki direla.

2.5 6. helburu estrategikoa –Euskadiren kanpo harremanen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea– betetzeko 2014-2016an gauzatutako ekintzak

Ondoren, 6. helburu estrategikoaren –Euskadiren kanpo harremanen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea– ekintza ildoak eta ekintzak, 2014-2016an ekintza bakoitzeko egin den jarduera eta horien betetze maila zehazten dira *Kanpo Harremanetarako Planaren planteatutako helburuekin alderatuta*.

6. taula. Helburu estrategikoaren ekintza ildoak, ekintzak eta betetze mailaren %, 2014-2016an

HELBURU ESTRATEGIKOA	EKINTZA ILDOA	EKINTZAK	BETETZE MAILA	BEKTOREAK				
				V1	V2	V3	V4	
⑥ EUSKADIREN KANPO HARREMANEN ERAGINKORTASUNA PROFESIONALIZATzea	1. KANPO HARREMANEN KOORDINAZIOA SENDOTU	1	Erakunde arteko komunikazio eta lankidetzaren mekanismoak indartzea	% 67 2/3 ekintza	✓	✓	✓	✓
		2	Bisita instituzionaleri lotutako aukerak identifikatu eta transferitzea	% 200 30/15 ekintza	✓	✓	✓	✓
		3	Sailen arteko komunikazio eta koordinazio mekanismoak indartzea	% 200 80/40 ekintza	✓	✓	✓	✓
	2. EUSKADI NAZIOARTEKOTZEKO PROZESUAN GIZARTEAK PARTE HARTzea AKTIBATU	1	Kanpo Harremanetarako Aholku Kontseilua sortzea	% 100 1/1 ekintza	✓	✓	✓	✓
		2	Euskal paradiplomazia finkatzea	% 187 935/500 ekintza	✓	✓	✓	✓
		3	Euskadiren kanpo harremanak gizarteari komunikatzeko estrategia integral bat garatzea	% 657 657/100 ekintza	✓	✓	✓	✓
	3. EUSKADIREN KANPO HARREMANAK PROFESIONALIZATU	1	Sailetan kanpo harremanen profila duten espezialistak izendatzeari bultzada ematea	% 70 63/90 ekintza	✓	✓	✓	✓
		2	Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko pertsonal teknikoari kanpo harremanetan eta diasporari buruzko azterlanetan etengabeko prestakuntza ematea	% 100 5/5 ekintza	✓	✓	✓	✓
		3	Nazioarteko gobernu edo erakundeekin administrazioan lan egiten duten pertsonen mugikortasun eta/edo truke programa bat diseinatzea	% 0 0/1 ekintza	✓	✓	✓	✓
		4	Kanpo harremanetako beka deialdia egitea	% 96 24/25 ekintza	✓	✓	✓	✓
	4. ORDEZKARITZEKIKO KOORDINAZIOA SENDOTU	1	Antena espezializatuak ezartzeko aurreazterketa egitea	% 100 1/1 ekintza	✓	✓	✓	✓
		2	Interneten presentzia izateko estrategia bat garatzea	% 100 1/1 ekintza	✓	✓	✓	✓
		3	Atzerrian ordezkaritza berriak eta/edo erakunde-presentzia modu berriak izateko azterketa egitea	% 100 1/1 ekintza	✓	✓	✓	✓
		4	Atzerriko euskal komunitatearekin ekinbide bateratuak egitea	% 200 30/15 ekintza	✓	✓	✓	✓

6. helburu estrategikoan –Euskadiren kanpo harremanen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea– sartuta dauden 14 ekintzetatik hamarrek lortu dituzte euren jomugak. Azpimarratu beharra dago L.6.2. Euskadi nazioartekotzeko prozesuan gizartearen parte hartzea aktibatzea eta L.6.4 Ordezkaritzekiko koordinazioa sendotzea ekintza ildoetako

ekintza guztiek lortu dituztela *Kanpo Harremanetarako Planean* 2014-2016 aldirako jarritako jomugak.

Hauek dira euren jomugak lortu dituzten ekintzak:

- 6.1.2. Bisita instituzionalei lotutako aukerak identifikatu eta transferitzea
- 6.1.3. Sailen arteko komunikazio eta koordinazio mekanismoak indartzea
- 6.2.1. Kanpo Harremanetarako Aholku Kontseilua sortzea
- 6.2.2. Euskal paradiploiazia finkatzea
- 6.2.3. Euskadiren kanpo harremanak gizarteari komunikatzeko estrategia integral bat garatzea
- 6.3.2. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko pertsonal teknikoari kanpo harremanetan eta diasporari buruzko azterlanetan etengabeko prestakuntza ematea
- 6.4.1. Antena espezializatuak ezartzeko aurreazterketa egitea
- 6.4.2. Interneten presentzia izateko estrategia bat garatzea
- 6.4.3. Atzerrian ordezkariak berriak eta/edo erakunde-presentzia modu berriak izateko azterketa egitea
- 6.4.4. Atzerriko euskal komunitatearekin ekinbide bateratuak egitea

6.1.3 Sailen arteko komunikazio eta koordinazio mekanismoak indartzea ekintzaren kasuan, Eusko Jaurlaritzaren sailtako taldeekin komunikazio dinamika arin eta etengabea sortu da, eta hori Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordearen bilera formalei eransten zaio.

Euskadi nazioartekotzeko politikei buruzko eztabaidak bultzatzeko gizarte zibilaren parte hartzeari irekita dagoen **Kanpo Harremanetarako Aholku Kontseilua eztabaidagunea sortzea** (6.2.1.), eta Gasteizen Nazioartekotzeko 2020rako Basque Country Esparru Estrategiaren esparruan lehen bilera egitea, Kanpo Harremanetarako Planaren seigarren helburu estrategikoarekin lerrotutako ekintzarik aipagarriena da. Elementu integratzaile bat da, kanpo harremanen eraginkortasunari eta kalitateari laguntzen diena, nazioartekotzeko euskal jokabideei buruzko eztabaidak bultzatzeko eragile sozial eta ekonomikoei irekita dagoen foro bat, lehen aipatutako Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordearen eta Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordearen osagarri dena horiek Euskadiren kanpo harremanetan egiten duten gobernantza eta jarraipen lanetan.

6.2.3 ekintzari dagokionez, azpimarratzekoak dira Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren parte hartzeak euskal unibertsitateetako prestakuntza jardunaldietan eta graduondoko programetan, erakunde publikoek nazioartekotzeari egiten dioten mesedea erakuste aldera.

Jomugak lortu ez arren, *6.3.4 Kanpo harremanetako beken deialdia* ekintzak **betetze maila altua dauka** (% 75 baino gehiago). Kanpo harremanetako beken helburua arlo honetako profesionalen espezializazioa eta prestakuntza bultzatzea da. Beken deialdiak egin dira bai Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren egoitzan Gasteizen bai Euskadik munduan dituen ordezkarietan. *6.3.1 Sailtan kanpo harremanen profila duten espezialistak izendatzeari bultzada ematea* ekintzaren betetze maila % 70ekoa izan da.

6.1.1 Erakunde arteko komunikazio eta lankidetzaren mekanismoak indartzea ekintza zati batean bete da, ez baitzen egin 2016an Erakunde arteko Batzordearen bilera bat, hauteskunde urtea zelako eta, beraz, zailtxoagoa. Hala ere, **euskal erakunde eta antolakundeekiko komunikazioak eta lankidetzak** mantendu dira nazioarteko ekitaldiak egiteko.



6.3.3 Nazioarteko gobernu edo erakundeekin administrazioan lan egiten duten pertsonen mugikortasun eta/edo truke programa bat diseinatzea ekintza izan da hiru urtekoan jarduerarik izan ez duen bakarra, baina kontaktuak hasi dira erakundeekin etorkizunean programa diseinatzeko.



3 2014-2016an egindako jardueraren ondorioak

Joan den hirurtekoan *Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren* jarduera *Kanpo Harremanetarako Planean* ezarritako 5 helburu estrategikoak betetzera bideratuta egon da.

Ondorio orokorra da **Kanpo Harremanetarako Plana 2014-2016 aldian arrakasta handiz bete dela**, helburu estrategiko guztiak estali direla eta jardueren % 70ek gainditu egin dituela proposatutako jomugak.

Ildo horretan aipagarriak dira **Lehendakariak 57 herrialdetako enbaxadoreekin egin dituen 80 bilerak, jaso dituen goi mailako 29 bisitak eta ordezkari diplomatikoekin izan dituen 7 talde bilera**, X. Legegintzaldian denak. Talde horiek Europar Batasuneko enbaxadoreak, ASEAN Asia Hego-ekialdeko Nazioen Elkarteko kideak, Visegrád taldeko kideak, Amerika Latinoko enbaxadoreak eta Arabiar Ligako kideak bildu dituzte. Legegintzaldian zehar **Lehendakariak egin dituen 11 bidaiak instituzionalak** ere nabarmentzekoak dira.

1. helburu estrategikoari –Euskadi munduan proiektatzea– dagokionez, hamaika ekintzetatik zazpik lortu edo gainditu dituzte Kanpo Harremanetarako Planean jarritako jomugak.

Helburu honi lotuta eta *L.1.1 Basque Country marka sendotzea eta L.1.2 nazioartekotzeko ingurunea sortzea* ekintza ildoan ekintzarik garrantzitsuenak hauek izan dira: marka zabalkundeko ekintzak antolatzea Tknika edo Basquetour bezalako erakundeekin elkarlanean; **euskal expertise sustatzea** ikuspegi sektorialetik, bereziki atzerriko erakundeekin lankidetzan; **Basque Country webgunea abiaraztea** (www.basquecountry.eus), zeinaren bitartez Euskadi munduan proiektatzen laguntzea eta Basque Country marka Interneten sustatzea bilatzen den.

L.1.3 Euskadiren nazioarteko posizioa hobetzea ekintza ildoan betetzea apustu bat izan da **euskal eragileek nazioarteko eragin handiko ekitaldietan parte hartzea bultzatzearen alde**, nazioarteko ekitaldi eta proiektuetan inplikaturik euskal expertise guztiaren sustapen intentsiboa eginik. Ildo horretan Basque Culinary World Prize saria sortu izana –herrialde markari lotutako nazioarteko entzutea duen sari bat da– edo 2016an Europako Kultur Hiriburua izateko hautaketa prozesuan Donostiari laguntza ematea azpimarratzekoa da.

2. helburu estrategikoari –Euskadiren interes multisektorialak aldezte– dagokionez, hamalau ekintzetatik hamarrek Kanpo Harremanetarako Planean jarritako jomugak lortu edo gainditu dituzte.

Helburu horrekin bat, lidergoa dugun sektoreen nazioarteko proiektazioa indartzearen alde egin da, hala nola, industria, garraioa, kultura, ingurumena edo osasuna. Horrela, *Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak* Euskadirekin osagarriak diren **bazkideekiko elkarlan hitzarmenak** egin ditu estrategikotzat jotzen direlako, hala nola Flandria, Querétaro eta Bavaria.

Ekintza guztiak burutu dira *L.2.3 Euskadiren erakunde harremanak atzerrian areagotzea* ildoan.

Harremanen indartze hori ordezkariak diplomatikoekiko solaskidetzaren egonkor eta etengabea edo bisita instituzional bati zuzen bati alderantzizkoak antolatzea bezalako bideetatik egin da. Atzerriko Euskadiren ordezkariak partaidetza funtsezkoa izan da.

Euskadi nazioartekotzeko lehentasuna edo bigarren lehentasuna duten **beste eskualde eta herrialde batzuekiko harremanak estutzea** ere nabarmendu daiteke (Estatu Batuak, Alemania, Frantzia, iparraldeko herrialdeak, Mexiko edo Txile, besteak beste), eta euren **enbaxada eta kontsul ordezkaritzekin eta nazioarteko erakundeekin ere bai**.

3. helburu estrategikoaren –Europaren eraikuntzaren parte-hartzaile kide eta erantzule kide izatea– kasuan, hamabost ekintzetatik hamabik lortu edo gainditu dituzte Kanpo Harremanetarako Planean jarritako jomugak.

EB euskal kanpo harremanetarako bigarren lehentasuneko lekua da. Horrela **goi mailako bilerak** egin dira euskal erakundeen ordezkarien eta EBko goi mailako gidarien artean, **euskal expertise** guztia zabaldu da, **Europako sareetan eta EBren ekinbide eta programetan** parte hartzea bultzatuz (*L.3.3 EBren erakunde, proiektu eta ekinbideetan euskal eragileen partaidetza eta presentzia areagotzea*), eta Euskadiren eta Akitania bezalako bazkide **estrategikoen arteko** mugaz gaindiko eta eskualde arteko lankidetzaren alde egin da. Ildo horretan, **eskualde arteko eta mugaz gaindiko lankidetzarako foro eta elkarteetan parte hartzea areagotu egin da**, esate baterako *Pirinioetako Lan Elkartean, Arku Atlantikoaren Batzordean eta Akitania-Euskadi Lurralde Lankidetzarako Europako Taldean (LLET)*, Euskadi presidente izan duena 2016ko martxora arte.

Halaber, *Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Erkidegoaren zuzenbidearen eginbeharrak betetzen* inplikaturik dauden Europako, estatuko eta eskualdeko erakundeekin elkarlana eta solaskidetzak areagotu ditu. Gertaera horren ondorioz *L.3.4 Erkidegoaren zuzenbidea aplikatzen dela jagotea* ildoan jarritako jomugak bete dira.

4. helburu estrategikoaren –Euskadik atzerriko euskal komunitatearekin dituen harremanak sustatu, lagundu eta areagotzea– barruan, hamasei ekintzetatik bederatzik lortu edo gainditu dituzte Kanpo Harremanetarako Planean jarritako jomugak.

Helburu horren esparruan eta *L.4.1 atzerriko euskal komunitatea orain osatzen duten taldeak konektatzea* ekintza ildoaren barruan, **Basque Global Network** sare soziala definitu eta abiarazi da, euskal komunitate globala artikulatzen joateko, eta euskal jatorria duten eta Euskadiganako hurbiltasuna duten pertsonak identifikatu dira. Halaber, emigrazioaren eta euskal diasporaren ahozko lekukotzen oinarri dokumental bat sortu da ("Memoria Bizia" proiektua), eta oso ondo hartu diren erakusketa ibiltariak antolatu dira.

Dauden Euskal Etxeen sareak ekintza maila handia mantendu du, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak deitutako diru laguntzek lagunduta, noski (*L.4.3 Atzerriko euskal komunitateari laguntzea Euskal Etxeen sarearen bitartez*). Egin diren ekintza guztiak osatzeko, atzerriko euskal komunitatea osatzen dutenak artatzera bereziki zuzenduta daudenak ditugu, bereziki behar gorrian dauden pertsonak eta familia unitateak edo Euskadira itzultzen diren euskal herritarrak eta euskal jatorrikoak babesteko.


Azkenik, *6. helburua –kanpo harremanen eraginkortasuna eta kalitatea–* dela eta, hamalau ekintzetatik hamarrek Kanpo Harremanetarako Planean jartzen ziren jomugak lortu edo gainditu dituzte.

Horrela, bada, hainbat ekintza egin dira Euskadiren **kanpo proiektzioan euskal gizarteko eragile guztiak integratzera** zuzenduta, eta lorpen handiena Kanpo Harremanetarako Aholku Kontseilua sortzea izan da (*L.6.2 Euskadi nazioartekotzeko prozesuan gizartearen parte hartzea aktibatzea*). **Koordinazio ahalegin handia** egin da bai *ad intra*, Kanpo

Harremanetarako Sailarteko Batzordearen bitartez eta Eusko Jaurlaritzaren sail guztiekin etengabe komunikatuz, bai beste erakunde batzuekin (*L.6.1 kanpo harremanen koordinazioa sendotzea*).

Nazioartekotzeko 2020rako Basque Country Esparru Estrategiak ezarritako aginduaren esparruan, 2014-2016 aldian hausnarketa prozesu bat hasi da kanpo proiektzioa duten Eusko Jaurlaritzaren ekintza guztien multzoaren eragina neurtzeko sistema bat diseinatzeko. Prozesu horren barruan, "**Euskadi nazioartekotzearen erradiografia**" egin eta argitaratu da; argitalpen egunean zeukaten balioarekin, adierazle objektibo eta subjektibo batzuk biltzen ditu. Erradiografia abiapuntua da **Herrialdea nazioartekotzearen kontrol eta jarraipen sistema bat eraikitze**ko.

1. irudia. 2014-2016 aldian jomugak lortu dituzten ekintzak, helburu estrategikoaren arabera (kop.; osatutako ekintza guztien %)



Amaitzeko, eta hirurtekoan osatutako ekintzak modu grafikoan azterturik, 1. irudian **2014-2016 aldian helburu estrategikoen arabera % 100 edo gehiago zenbat ekintza bete diren** azaltzen da, kopurutan eta ehunekotan osatu diren ekintza guztiekin alderatuta.

2014-2016 aldian lortutako emaitzak **Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusi** osoaren lan gogorraren fruitu izan dira; horretan bere **3 zuzendaritzek** –*Kanpo Harremanen Zuzendaritza, Europako Gaietarako Zuzendaritza eta Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza*– **Euskadik atzerrian dituen ordezkariak** (Ameriketako Estatu Batuak, Mexiko,



Argentina-Mercosur, Txile-Peru-Kolonia eta Europar Batasunerako Euskadiren Ordezkaritza) eta **Madrilgo ordezkari bulegoak** hartu dute parte.
